

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Atal honetan, bakoitzaren abileziak kontuan hartuta, guk egin beharreko lanak banatu ditugu ahal den etekin handiena ateratzeko taldekide bakoitzetik.

Lehendabizi egingo dugun lana web gunea kontrolatzea da. Julenek ikastaroa egin ondoren, web guneei buruz asko jakingo du, eta gai izango da honen kontrola eramateko. Bertan gure produktuaren espezifikazioak jarriko ditugu, eta bezeroekin kontaktuan jarri gaitzake ere bai. Baina erabili ahal izateko lehenengo sortu egin behar da, eta esan dugun bezala abilezia handia du interneten mugitzeko, horregatik, bera izango da web gunea sortuko duen pertsona. Diseinua eta erabilera bere esku utziko dugu.

Guk egin beharreko lan oso garrantzitsu bat diruaren kudeaketa da. Lan honetaz, matematiketan eta kalkukuluetan ona den pertsona bat arduratuko da. Pertsona honek, diru sarrerak eta diru irteerak kontrolatuko ditu eta horrela diru irteerak diru sarrerak baina handiagoak izatea sahiestuko dugu. Honetaz arduratuko den pertsona Unai izango da.

Mantetze-lanetarako pertsona bat egongo da, eta pertsona hori Iñigo izango da. Berari txikitatik gustatu zaio bihurkinekin lana egitea eta guk uste dugu abizelia handia duela horrelako gauzekin. Baina guk uste dugu, lehenengo ezagutza pixka bat beharko duela termodinamikan, baina behin hori jakinda, lana ondo egingo du.

Bezeroekin kontaktuan jartzeko, webgunea izango da gure bidea eta webgunearen bitartez edukiko ditugu bezeroekin harremanak. Bezeroek produktua erosi ondoren arazorik badute, produktuaren inguruan galderarik badute edo produktuaren zatiren bat pertsonalizatu nahi badute, webgunean hainbat aukera izango dituzte gurekin kontaktuan jarri ahal izateko. Aimar izango da honetaz arduratuko dena, webgunearen bitartez galderak edo emailak erantzun beharko ditu eta horrez gain, telefono kontaktuaren arduraduna izango da bezeroen batek gurekin zuzenean hitz egin nahi badu.

Publizitatea ere gure esku geldituko da, denda batzuetan ikusgai jarri nahiko genuke, horrela, kaletik doan jendea hortik pasatzen denean hau ikusi eta zer den jakin nahiko dute, honekin jendearen atentzioa deitzea lortu nahi dugu, produktuan interesa jartzea eta zer den eta nola funtzionatzen duen galdetzea. Hau guztiaz arduratuko den pertsona Oroitz izango da, sormen handia duenez, dendan aterki-ontzia erakusleihoaren disenua nola jartzeaz eta nola apaintzeaz arduratuko da.